BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIRAKO HAINBAT MATERIALEN ALOKAIRUA, GARRAIOA, MUNTAKETA ETA DESMUNTAKETA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

AURKIBIDEA

1. Klausula.- Kontratuaren xedea

2. Klausula.- 1. Lotea – Bastidoreak, hesiak eta irratien stand-ak. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

3. Klausula.- 2. Lotea – Moketa eta ezkaratzerako oholtza. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

4. Klausula.- 3. Lotea – Banderatxoak kokatzeko euskarriak. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

5. Klausula.- 4. Lotea – Hesiak, oholtzak eta kable estalkia. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

6. Klausula.- 5. Lotea – Karpak. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

7. Klausula.- 6. Lotea – Hoteleko Photo call-a. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

8. Klausula.- 7. Lotea – Hainbat material. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

9. Klausula.- Erantzuteko gehienezko denbora

10. Klausula.- Zerbitzuari buruzko informazio osagarria

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuak hesi, stand-etarako manparak, karpak, photocall egitura, eta abar alokatzea, garraiatzea, muntatzea, garbitzea eta desmuntatzea du xede; baita Donostia Zinemaldiarenak diren hainbat material garraiatzea, muntatzea, desmuntatzea eta biltegiratzea ere. Kontratua lote hauetan banatzen da:

- **1. Lotea:** Bastidoreak, hesiak eta irratien stand-ak
- **2. Lotea:** Moketa eta ezkaratzerako oholtza
- **3. Lotea:** Banderatxoak kokatzeko euskarriak
- **4. Lotea:** Hesiak, oholtzak eta kable-estalkia
- **5. Lotea:** Karpak
- **6. Lotea:** Photo call-a
- **7. Lotea:** Hainbat material

Lote bakoitzean eskatutako materiala eta eman beharreko zerbitzuak plegu honetan deskribatutakoak dira.

Lizitazio honetatik kanpo geratzen dira plegu honetan barne hartu ez diren materialak, eta esleipendunak ez diren hirugarrenei kontratatu ahal zaizkie, programatu nahi den ekintzaren ezaugarriek eta beharrek eskatzen badute.

Lizitatzaileek lote baterako edo batzuetarako eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte. Hala ere, lizitatzaile bakoitzari gehienez 4 lote esleitu ahal izango zaizkio, eta lote gehiagoren esleipendun izanez gero, horietako bati uko egin beharko zaio. Kasu horretan, puntuaziorik handiena lortu duen hurrengo lizitatzailea izango litzateke esleipendun.

2.- 1. LOTEA. – BASTIDOREAK, HESIAK ETA IRRATIEN STAND-AK. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

1.- Bastidoreak

Ondorengo materiala garraiatzea, muntatzea, desmuntatzea eta behin Zinemaldia amaitutakoan honek Martutenen dituen biltegian biltegiratzea:

a) Sail Ofizialeko Photo Call-erako burdinazko bastidore 1 (4 m-ko luzera x 3 m-ko altuera eta 0,50 m-ko sakonera, gutxi gorabehera), honako osagarri hauek dituena: alboko, goiko eta beheko melaminazko xaflak, olanari eusteko; kontrapisuak; eta atzeko oihala jartzea, ixteko; eta aurreko olana.

b) Altzairu herdoilgaitzezko 6 bastidore (6 cm eta 200 cm-ko luzerakoak) Kursaaleko ezkaratzean jartzeko, argiztapen fokuetarako. Sabaiko forjan instalatuko dira, tirafondoak eta zirrindolak erabiliz.

750 kg-ko kontrapisu bat alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, Photo Call-ari eusteko, lonazko zorro zuri baten bidez estalita.

2.- Hesiak

a) Zinemaldiak Martutenen dituen biltegietatik jarraian aipatzen den materiala garraiatzea, Maria Cristina Hotela, Okendo Plaza eta Kursaalaren artean multzoka uztea eta behin Zinemaldia amaitutakoan, jaso eta biltegian gordetzea:

   - 250 hesi (1,05 m-ko altuera, eta 2,30 m-ko luzerakoak, gutxi gorabehera).

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

b) Ondorengo materiala alokatzea, garraiatzea, Maria Cristina Hotela eta Kursaalaren artean multzoka uztea eta desmuntatzea:

- 100 hesi galbanizatu (1 m-ko altuera eta 2,50 m-ko luzerakoak), elkarrekin gurutzatu eta lotu daitezkeenak.

c) Ondorengo materiala alokatzea, garraiatzea eta egun desberdinetan Donostiako hainbat kaletan kokatzea. Material hau egun desberdinetan jaso beharko da:

- Metalezko edo antzeko hesiak (1 m x 1,05 m-koak), "debekatuta" seinalea eta baliza zinta dituztenak, elkarri lotuta, 16 gunetan aparkalekua erreserbatzeko (gune bakoitzeko 75 m, gehienez).

d) Metalezko 40 hesi (1 m x 1,05 m-koak) alokatzea, garraiatzea, uztea eta jasotzea. Hesiak Anoetako Belodromoko atean utzi beharko dira.

3.- Irratien standerako manparak

Irratien standetarako ondorengo materiala alokatzea, garraiatzea eta Kursaalean muntatzea eta desmuntatzea:

- Stand gisako manpara 8mm-ko aglomeratua eta melaminazko estalkia dituena edo antzekoa (gutxi gorabehera, 2,20 m-ko altuera eta 1 m-ko zabalerakoak), kolorea zehazteke, aluminiozko profilak dituztenak, moketarekin eta argiztapenarekin. Stand-eko prezioa (m^2).

2022rako beharren aurreikuspena: 39 m^2

4.- Irratien standerako altzariak

Irratien standerako ondorengo materiala alokatzea, garraiatzea eta Kursaalean muntatzea eta desmuntatzea:

- Bileretarako mahai bat (800 mm-ko diametrokoa eta 720 mm-ko altuerakoa), zehaztu beharreko kolore batekoa, erdian hanka bat duena. 4 aulki, mahaiarekin bat datozenak.

2022rako beharren aurreikuspena: 4 mahai eta 16 aulki.

5.- Koprodukzio Foroko standetarako panelak

Koprodukzio Foroko standetarako ondorengo materiala alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea:

- Standetarako panelak, 8mm-ko aglomeratua eta melaminazko estalkia dituztenak eta aluminio-gris koloreko (ref: 509) edo antzekoak. Neurriak: 2,5 m-ko garaiera eta 1 m-ko zabalera. 19 stand egiteko zuriz lakatutako aluminiozko profilarekin. Espazio bakoitzean, eskeleto moduko 4 led lanparaz osatutako argiztapena egongo da, panelen gainean finkatuta. Paneleko prezio unitarioa.

Stand hauek San Telmo Museoaren elizan jarriko dira normalean. Muntaketa igandean egingo da eta desmuntaketa gaueko ordutegian.

2022rako beharren aurreikuspena: 86 panel.

3.- 2. LOTEA. – MOKETA ETA EZKARATZERAKO OHOLTZA. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

1.- Azoketarako suaren kontrako M3 moketa

m^2 azoketarako suaren kontrako M3 moketa (kolorea zehazteke) hornitzea, muntatzea, plastikoz estaltzea babestea, eta desmuntatzea, kanpoalde zein barrualderako. Prezioa m^2-ko. Ezaugarriak:

- Moketa puntzonatu lisoa, gutxienez 290g/m^2-koa.
- Suaren kontrako M3 kalitatea.
- Koloreak: hainbat.
- Babes plastikoa duen moketa: erraz ken daitekeen plastiko itsasgarriaren bidezko estaldura.

Oharra: Lote honetatik kanpo geratzen dira beste hornitzaile batek hornitutako elementu edo materialen moketatzeak (stand-ak, oholtzak, etab.).

2022rako beharren aurreikuspena: 1.500m^2.

2.- Babesle batek emandako azoketarako moketa

Babesle batek emandako azoketarako moketa garraiatzea, muntatzea eta y desmuntatzea. Garraiorako, muntaketarako eta desmuntaketarako orduko prezioa.

Prezioaren barruan garraioa eta barruan zein kanpoan jartzeko behar den zinta sartzen dira.

Oharra: Lote honetatik kanpo geratzen dira beste hornitzaile batek hornitutako elementu edo materialen moketatzeak (stand-ak, oholtzak, etab.).

2022rako beharren aurreikuspena: 50 ordu.

3.- Argazkilarien photocall-erako uztai motako oholtza

Ondorengo materiala alokatzea, garraiatzea eta Kursaaleko ezkaratzean muntatzea eta desmuntatzea:

- Argazkilarien photocall-erako uztail motako oholtza edo antzekoa, hanka teleskopiko erregulagarriarekin, azoketarako suaren kontrako M3 moketa duena, gutxi gorabehera 7 m-ko luzera x 2 m-ko zabalerakoa, 3 altueratan (zehazteke). Atzeko eta alboko babes baranda izango du, eta atzealdean, aurrealdean eta alboetan, egurrezko zango-babes perimetrala eta moketa.

2022rako beharren aurreikuspena: oholtza bat.

4.- DJ-arentzat uztai motako oholtza

Ondorengo materiala alokatzea, garraiatzea eta Kursaaleko ezkaratzean muntatzea eta desmuntatzea:

- DJ-arentzat uztai motako oholtza edo antzekoa, azoketarako suaren kontrako M3 moketa duena 2 m x 1 m x 0,40 m-ko altuera duena, aurrealdean eta alboetan ere moketa duena.

2022rako beharren aurreikuspena: oholtza bat.

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

4.- 3. LOTEA – BANDERATXOAK KOKATZEKO EUSKARRIAK. Hornikukntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

Faroletan banderatxoak kokatzeko euskarriak alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. 500-900mm arteko hegala izan beharko dute farolatik.

Euskarriak metalezkoak, PVCzkoak, beira-zuntzezkoak edo antzekoak izango dira. Zirkunferentzi-neurri desberdinekin erabiltzeko modukoak izango dira. Bela-efektua eta farolak kaltetuak izatea eragotziko duen eusteko sistema izango dute.

Prezioa unitarioa izango da, mantenua barne.

2022rako beharren aurreikuspena: 52 unitate.

5.- 4. LOTEA – HESIA, OHOLTZAK ETA KABLE-ESTALKIA. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

1.- Jende-oldeen kontrako hesiak (10 egunerako)

Jende-oldeen kontrako hesiak (1,21 m-ko altuera x 1,30 m-ko sakonera x 1,11 m-ko zabalera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, orga jasotzailea barne, 10 egunerako. Tramexean egindako ikusleentzako zorua, txapa zulatuko aurrealdea eta segurtasun langileentzat eskailera-maila eduki beharko ditu. Prezioa (unitatea).

2022rako beharren aurreikuspena: 200 unitate.

2.- Hesi galbanizatuak (10 egunerako)

Hesi galbanizatuak (1 m x 2,05 m-ko altuera gutxi gorabehera eta elkarrekin gurutzatu eta lotu daitezkeenak), 10 egunerako. Prezioa (unitatea).

Oharra: 30 unitateko gutxieneko eskaerarako prezioa.

Hesiak elkarren artean lotzen dituen muntaketa egonez gero, prezioa % 25 igoko da.

2022rako beharren aurreikuspena: 200 unitate.

3.- Hesia altuak (10 egunerako)

Hesi altuak (gutxi gorabeherako neurriak: 2 m-ko altuera x 3 m-ko zabalera) alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea, kontrapisuak barne, 10 egunerako. Prezioa (unitatea).

2022rako beharren aurreikuspena: 30 unitate.

4.- Kable-estalkia

Goi-dentsitateko poliuretanoz egindako kable-estalkiak. Ezaugarriak:

- Aire zabalean gogorra.
- Mihiztatze-sistema modularra.
- Gainazal ez-labaingarria.
- Pisu handiko ibilgailuak igarotzeko egokia.
- Suaren kontrakoa.

Prezioa (Unitatea).

Oharra: 12 unitateko gutxieneko eskaerarako prezioa.

2022rako beharren aurreikuspena: 12 unitate.

5.- Uztai motako edo antzeko oholtza tolesgarria/oin finkokoa eta oin teleskopikoa duena

Oholtza modularrak, tolesgarriak / oin finkokoak, uztai motakoak edo antzekoak, eta oin teleskopikoa eta altuera erregulagarria duten oholtzak, 2 m x 1 m eta 2 m x 0,50 m neurriekin. Prezioa (unitatea). Ezaugarriak:

- Oholtza modularrak 2x1 metrokoak eta 2x0,50 metrokoak, oin finkoa eta oin teleskopikodunak, material hauekin eginak: aluminioa (markoa), altzairuzko oinak (teleskopikoak) eta panel fenoliko irristagaitza, suaren kontrakoa eta hidrofugoa.
- Altuera erregulatzeko sistema, zorutik 20, 40, 60, 80, 100 eta 140cm-ko posizioak ahalbidetzeko.
- m^2-ko erresistentzia 500 kg-koa edo handiagoa izango da. Homogeneoki banatuta egongo dira eta segurtasun koefizientea 1,5 izango da gutxienez.
- Sartzeko eskailerak edukiko dituzte, beharrezkoa izanez gero.

Oharra: Lote honetatik kanpo geratzen dira beste loteetan eskainitako oholtzak eta baita Kursaalaren barrualdekoak, Belodromokoak eta Tabakalerakoak ere.

2 unitateko gutxieneko eskaerarako prezioa.

2022rako beharren aurreikuspena: 48 unitate.

6.- Oholtzarako baranda

Oholtzarako baranda alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. Prezioa (metro lineala). Ezaugarriak:

- Materiala: altzairu galbanizatua, aluminio anodizatua…
- Altuera 110mm.
- Modularrak.

2022rako beharren aurreikuspena: 46 metro lineal.

7.- Oholtzarako zango-babes perimetrala

Oholtzarako zango-babes perimetrala hornitzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. Oholtza instalatzen den esparruko zoruaren eta oholtzako zoruaren arteko altuera estali beharko dute. Prezioa (metro lineala). Ezaugarriak:

- Materiala: suaren kontrako M2 kalitatea.
- Kolorea: zehazteke.

2022rako beharren aurreikuspena: 50 metro lineal.

8.- Oholtzarako moketa

Azoketarako suaren kontrako moketa hornitzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, oholtzarako. Prezioa (m^2). Ezaugarriak:

- Moketa puntzonatu lisoa, gutxienez 290g/m^2-koa.
- Suaren kontrako M3 kalitatea.
- Koloreak: hainbat.
- Babes plastikoa duen moketa: erraz ken daitekeen plastiko itsasgarriaren bidezko estaldura.

2022rako beharren aurreikuspena: 40 m^2.

6.- 5. LOTEA – KARPAK. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

Jarraian aipatzen diren 5x5m-ko eta 3x3m-ko jaimek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Sabaia eta alboak estaltzeko olanak, poliesterrezkoak, 1.100 Dtex. aurretenkatua eta erresistentzia altuko PVCzko indukzioarekin.
- M2 olanetan suaren kontrako erreakzio ziurtatua – 650 gr/m^2
- Izpi ultramore, lizun, gazitasun eta abarren kontra tratatutako olanak.
- Olana iragazgaitzak.
- Olanen kolorea zehazteke.
- Muntaia modular indibiduala eta osoa egiteko aukera.
- Gutxieneko altuera eta erresistentzia:
    - Pagoda gisako 5x5m-ko jaima: 2,40 m-ko gutxieneko altuera alboan, 5 m-ko guztizko altuera eta hanka bakoitzean 380kg/m^2-ko erresistentzia.
    - Pagoda gisako 3x3m-ko jaima: 2 m-ko gutxieneko altuera alboan, 3,80 m-ko guztizko altuera eta hanka bakoitzean 255kg/m^2-ko erresistentzia.
- Zutabeak eta gainerako mihiztatze elementuak aluminio anodizatuz egindakoak izango dira.
- Haizearen aurkako gutxieneko erresistentzia: 100 km/orduko.
- Karpek lurrera ainguratu gabe eusteko sistema edukiko dute eta egoera haizetsu arruntetan karpa altxatzea ekiditeko moduko sendotasuna izango dute. Euste-sistema babestuta egongo da, erabiltzaileek eta abarrek istripurik jasateko arriskua ekiditeko. Era berean, karparen estetikarekin bat etorriko da.
- Larrialdi-irteeren kartelak eta gainerako hitzak EAEko bi hizkuntza ofizialetan adieraziko dira.

Jarraian aipatzen diren 3x3m-ko azkar muntatzeko karpek ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Karpek lurrera ainguratu gabe eusteko sistema edukiko dute eta egoera haizetsu arruntetan karpa altxatzea ekiditeko moduko sendotasuna izango dute. Euste-sistema babestuta egongo da, erabiltzaileek eta abarrek istripurik jasateko arriskua ekiditeko. Era berean, karparen estetikarekin bat etorriko da.
- Goialdea estaltzeko olana bat edukiko dute eta errezelak alboetan eta atzealdean, hala eskatzen bada.
- Larrialdi-irteeren kartelak eta gainerako hitzak EAEko bi hizkuntza ofizialetan adieraziko dira.

Eskumena duen teknikariak bermatuko du, ziurtagiri bidez, edozein karparen muntaiaren egokitasuna (*azaroaren 10eko EAEko Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko Jardueren 4/1995 Legeko 15.2 artikulua: "Aldi baterako instalazioetan edo egituren kasuan, ikus-entzuleen eta egileen segurtasuna, higienea eta erosotasuna ziurtatzeko beteko diren baldintzak, instalazio finkoetan bete beharrekoen berdinak izango dira, eta behar den bezala ziurtatuko dira eskumena duen teknikariak luzatutako espedientearen bitartez"*).

1.- Pagoda gisako jaima (5x5m-koa) egun batetik laura bitartean

Pagoda gisako jaima 1 (5 m x 5 m) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, errezelak, kontrapisuak eta argiztapena barne. Alokairuaren iraupena: egun batetik laura bitartean. Prezioa (unitatea).

2022rako beharren aurreikuspena: 2 jaima.

2.- Pagoda gisako jaima (3x3m-koa) egun batetik laura bitartean

Pagoda gisako jaima 1 (3 m x 3 m) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, errezelak, kontrapisuak eta argiztapena barne. Alokairuaren iraupena: egun batetik laura bitartean. Prezioa (unitatea).

2022rako beharren aurreikuspena: 4 jaima.

3.- Azkar muntatzeko karpa (3x3m-koa)

Azkar muntatzeko karpa (3 m x 3 m) bat alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. Lehen aipatutako ezaugarriak izango ditu.

Alokairuaren iraupena: egun batetik laura bitartean. Prezioa (unitatea).

2022rako beharren aurreikuspena: 1 jaima.

4.- Karpetarako zorua

Ezaugarri hauek izango dituzten karpetarako zoruak: Prezioa (m^2).

- Oholtza mugikorra: gutxienez 21 mm-ko lodierako taulak edukiko ditu, mihiztatzeko plaka metalikoekin, eta metalezko bastidorearen gainean muntatuko da, isolamendu termikoa egiteko eta euri-uren isolamendua egiteko.
- Mantentzea: materiala erabilera-baldintza ezin hobetan egongo da, bai segurtasunari dagokionez bai estetikoki, eta ez da onartuko altxaturik, berniz-faltarik eta abar.
- Muntatu ondoren, minusbaliotasunak dituzten pertsonak modu erosoan sartzeko baldintzak eskainiko ditu.

2022rako beharren aurreikuspena: 25m^2.

5.- Karpetarako moketa

Azoketarako suaren kontrako moketa hornitzea, karpetarako. Prezioa (m^2). Ezaugarriak:

- Moketa puntzonatu lisoa, gutxienez 290g/m^2-koa.
- Suaren kontrako M3 kalitatea.
- Koloreak: hainbat
- Babes plastikoa duen moketa: erraz ken daitekeen plastiko itsasgarriaren bidezko estaldura.

2022rako beharren aurreikuspena: 25m^2.

7.- 6. LOTEA – HOTELEKO PHOTO CALL-A. Hornikuntzak eta eskaini beharreko zerbitzuak

MARIA CRISTINA HOTELEKO PHOTO CALL-A: 25 cm-ko karratutxodun saretaz egindako 2 egitura, 4,5 m x 3,5 m-koak (3,25m-ko altuera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, olanari eusteko. Olana opakozko 2 estalki kurbatu (4,5 m x 3,5 m-koak) eta 2 oholtza (4 m x 2 m-koak), bi altueratan (0,40 m y 0,80 m), azoketarako suaren kontrako moketarekin, alboetako eta atzeko barandarekin eta horien estalduradun kontrapisuekin, egiturei eusteko. 2 unitateren prezioa.

4x3m-ko 2 hondo muntatzea.

Oharra: Zinemaldiak inprimatze digitala duten olana mikrozulatuko bi hondoak ditu (4x3m).

Egitura horiek, oro har, igandean desmuntatuko dira.

8.- 7. LOTEA – HAINBAT MATERIAL. Hornikuntza eta eskaini beharreko zerbitzuak

1.- Katenaria erretraktila

Katenaria erretraktila 2 eta 3 metroko luzeran zabalgarria, alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea, Kursaaleko K1 Sail Ofizialerako. Prezioa (unitatea). Ezaugarriak:

- Materiala: altzairu herdoilgaitza, kromatua edo antzekoa.
- Altuera: 95 cm
- Zorurako babesa duen oinarri zirkularra.

2022rako beharren aurreikuspena: 60 unitate.

2.- Guraize motako mahaiak

Pvc edo egurrezko mahaia, guraize motakoa edo tolesgarria, alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea. Gainalde grisa eta 185x50, 185x80, 200x90 neurriak izango ditu. Prezioa (unitatea).

Oharra: Kursaala kanpoan gelditzen da. Material honen alokairua 2 hilabetera artekoa izan daiteke.

2022rako beharren aurreikuspena: 23 unitate.

3.- Mahaietarako oihalak / zango-babesak

185x50, 185x80, 200x90 neurriak dituzten mahaietarako oihalak / zango-babesak alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea. Prezioa (unitatea). Ezaugarriak:

- Materiala: kotoia edo antzekoa.
- Koloreak: zuria, granatea, urdina…
- Neurriak: 1,85/2/2,05x0,75/0,80x0,75m-ko mahaiak estaltzekoak.

2022rako beharren aurreikuspena: 3 unitate.

4.- Mahai baxua

50x50x50-ko zurezko mahai baxua, melamina zuriko xafladuna edo antzekoa alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea. Prezioa (unitatea).

2022rako beharren aurreikuspena: 4 unitate.

5.- Bulegoko mahaia

160cm x 80cm x 72cm-ko zurezko bulegoko mahaia, melamina zuriko xafladuna edo antzekoa alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea. Prezioa (unitatea).

Oharra: Kursaala kanpoan gelditzen da. Material honen alokairua 2 hilabetera artekoa izan daiteke.

2022rako beharren aurreikuspena: 7 unitate.

6.- Banakako besaulkia

Banakako besaulki birakaria polipielean, zuria edo antzekoa alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea. Prezioa (unitatea).

2022rako beharren aurreikuspena: 10 unitate.

7.- Bulegoko aulkia

Bulegoko aulki ergonomikoa, iKayaa SP-7501-2 modeloa edo antzekoa, gurpilduna, birakaria eta bizkarralde altua eta gas bidezko goratze-sistema dituena alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea. Prezioa (unitatea).

Oharra: Kursaala kanpo gelditzen da. Material honen alokairua 2 hilabetera artekoa izan daiteke.

2022rako beharren aurreikuspena: 14 unitate.

8.- Gel-banagailuak

Gel hidroalkoholikoaren zutikako banagailu pertsonalizatua, Zinemaldiaren irudiarekin, litro bateko edukierarekin alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea, gela barne. Prezioa (unitatea).

2022rako beharren aurreikuspena: 8 unitate.

9.- Birziklapenerako ontziak

Birziklapenerako pvc-zko ontziak, 240 litrokoak, horiak eta urdinak, estalkia dutenak, alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea. Prezioa (unitatea).

2022rako beharren aurreikuspena: 4 unitate.

10.- Zutikako hautsontziak

Zutikako hautsontziak alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea. Prezioa (unitatea). Ezaugarriak:

- Materiala: altzairu herdoilgaitza, kromatua edo antzekoa.
- Gutxi gorabeherako altuera: 95 cm

2022rako beharren aurreikuspena: 2 unitate.

11.- Zoru ez labaingarria

Zoru ez labaingarria, oholtza motakoa edo antzekoa, aluminiozko bastidorearen gainean jarriko dena, plastikoz estalitako moketa, isurki perimetrala eta sartzeko arrapala dituena, alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzea. Prezioa (m^2).

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

Oharra: zoru hau, oro har, San Telmo Museoko Klaustroko lorategian muntatuko da. Muntaketa zein desmuntaketa gauez egingo dira.

2022rako beharren aurreikuspena: 200 m^2.

9.- ERANTZUTEKO GEHIENEZKO DENBORA

Aurreikusi gabeko premia gehigarriak egonez gero, esleipendunak horiei erantzun eta hornitu beharko ditu, gehienez 45 minutuko epean, Zinemaldiak eskaera egiten duenetik zenbatzen hasita.

10.- ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

1.- Oro har, muntaketa Zinemaldiak adieraziko duen egun eta ordutegian egingo da.

Ekitaldia behin bukatuta egingo da desmuntaketa, normalean igandean.

Muntatzea eta desmuntatzea lanegunetan, jaiegunetan edo gauez egin ahal izango da eta honek ez du aldaketarik eragingo lizitatzaileek eskainitako prezioan.

2.- Materialek estetika eta garbitasun baldintza egokiak izan beharko dituzte.

3.- Ez da enpresa esleipendun(ar)en edo besteren publizitaterik onartuko, Zinemaldiak berariazko baimena eman ezean.

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com